

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

6352

71/2021 EBAZPENA, azaroaren 30ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Helduen Alfabetatzerako eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko lankidetz hitzarmena, azken hori erakunde laguntzaile izan dadin euskara-mailak edo bestelako baliokideak gainditu dituzten gipuzkoar ikasleei dirulaguntza osagarriak emateko prozesuan.

HABEk hitzarmena sinatu duenez gero, zabalkunde egokia izan dezan, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Helduen Alfabetatzerako eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko lankidetz hitzarmena, azken hori erakunde laguntzaile izan dadin euskara-mailak edo bestelako baliokideak gainditu dituzten gipuzkoar ikasleei dirulaguntza osagarriak emateko prozesuan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 30a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO
ZUZENDARIAREN AZAROAREN 30EKO 71/2021 EBAZPENARENA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Aitorra

HABE

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Helduen
Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako
Erakundearen (HABE) arteko lankidetzaren hitzarmena,
azken hori erakunde laguntzaile izan dadin euskara-
mailak edo bestelako baliokideak gainditu dituzten
gipuzkoar ikasleei 2021ean dirulaguntza osagarriak
emateko prozesuan**

Hitzarmen hau gauzatu eta sinatzeko bildurik,

Markel Olano Arrese, Gipuzkoako diputatu nagusia.

Bingen Zupiria Gorostidi, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, HABEren
presidente gisa.

Esku hartzen dute

Markel Olano Arrese jaunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, hala baitagokio
6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde
Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40.3.b) artikuluan xedatutakoaren
arabera.

Bingen Zupiria Gorostidi jaunak HABEren izenean eta ordezkapenez, 14/2017
Dekretuak, urtarrilaren 10ekoak, xedatutakoaren arabera.

Bi ordezkariak elkarri behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote, eta
dokumentu honetan jasotzen den konpromisoa izenpetzea erabaki dute, horretarako elkar
hartuta hitzarmen hau sinatuz.

**HABE**

Azalpena

HABEren euskara-mailak edo bestelako baliokideak gainditu dituzten gipuzkoar ikasle helduei dirulaguntza osagarriak emateko deialdia onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehentasunezkoztat jotzen du lankidetzaz lantzea hizkuntza normalizazioaren inguruan lan egiten duten gainerako herri erakundeekin, proiektu jakinen gainean euskararen erabilera areagotzeko bidean. Eusko Jaurlaritzak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu zuen, 2012ko uztailaren 24an. Plan hori da, hain zuzen, erakundeen hizkuntza politikak egun duen tresnarik garrantzizkoena, bai bere asmo eta xedeak aurrera eramateko, bai herri administrazio guztien zereginak bateratu eta koordinatzeko. Bertan ezartzen dira herri aginteen hizkuntza politikak hurrengo urteetan izango dituen irizpide estrategikoak, baita administrazio guztiek aintzat hartu behar dituzten ezinbesteko elementuak ere.

ESEPEk garrantzi handia aitortzen dio helduen euskalduntze-alfabetatzeari: «euskarak helduen komunikaziorako tresna erreala izan behar du, erraztasunak izan behar ditu bere txikitasunean mundu globalizatuan ibiltzeko, maila kritikoak zainduta, arriskutik salbu. Euskara etxean jaso ez dutenek arreta berezia dutela sentitu behar dute, ezagutza hobetu ahal izateko eta komunitatean parte hartu ahal izateko, inor baztertua izan gabe». Herri erakundeek bultzatu behar duten politika publikoen gidalerro hori aintzat harturik, botere publikoek, eragile politikoek eta helduen euskalduntze-alfabetatze esparruko eragile sozialek aho batez onartzen dute urrats garrantzitsu bat izango litzatekeela. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak definitzen dituen mailen artean B2 maila bitarteko ibilbidea guztiz doakoa izatea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu hori gipuzkoar herritarrentzat gauzatzeko lagundu nahirik, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko aurrekontuan diru partida bat aurreikusi zuen, hain zuzen ere, Gipuzkoan helduen euskalduntzearen esparruan B2 mailara bitarteko ikaskuntza prozesua doan izateko bidea lantzeko.

Xede hori gauzatu ahal izateko, oso gogoan izan behar da 29/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) sortu zuenak, argitzen dituela helduen euskalduntze-alfabetatzearen arloko eskumenak.

Baita ere, kontuan izan behar da 179/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro

**HABE**

homologatuen jarduera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik jasotzen duten finantzaketa arautzen duena. Izan ere, dekretu horretan arautzen dira, besteak beste, euskalduntze-prozesuetan murgilduta dauden ikasleei zuzendutako dirulaguntzak.

Xedapen horien argitan, zentzuzkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren xedea —hau da, gipuzkoar ikasleentzat Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak definitzen dituen mailen artean B2 maila bitarteko ibilbidea guztiz doakoa izatea— betetzeko laguntza osagarriak HABEk eratua duen sistemaren barruan ematea, sistema horrek dituen baldintzak eta mekanismoak aintzat hartuta.

Ekimen horien barruan txertatzen da, hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021. ekitaldirako onartu duen deialdia, HABEren euskara-mailak edo bestelako baliokideak gainditu dituzten gipuzkoar ikasleei dirulaguntza osagarriak emateko.

Hain zuzen ere, hitzarmen honen xedea da HABEren euskara-mailak edo bestelako baliokideak gainditu dituzten gipuzkoar ikasleei dirulaguntza osagarriak emateko Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako deialdian HABEk erakunde laguntzaile gisa izango dituen eginkizunak eta betebeharrak zehaztea.

Hartara, aipatutako bi aldeek ondoko klausulak izango dituen hitzarmena sinatzen dute:

Klausulak

Lehena.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da arautzea HABEk zein eratan egingo dituen erakunde lankidearen zereginak, HABEren euskara-mailak edo bestelako baliokideak gainditu dituzten euskaltegi-tako gipuzkoar ikasle helduei dirulaguntza osagarriei buruz Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako deialdia gauzatu eta kudeatzen.

Bigarrena.- Dirulaguntzen araudia

HABEk, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren erakunde laguntzaile gisa, kudeatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako deialdia, HABEren euskara-mailak edo bestelako baliokideak gainditu dituzten gipuzkoar ikasleei dirulaguntza osagarriak emateko, hitzarmen honetan ezarritako xedapenen arabera.

**HABE*****Hirugarrena.- Iraupena***

Hitzarmen honen indarraldia hasiko da izenpetzen den egunean, eta sei hilabeteko epean amaituko da. Hitzarmen hau ez da luzagarria izango.

Halere, bi alderdietako edozeinek suntsiarazi ahal izango du, besteari jakinaraziz, hitzarmena indargabetu nahi den data baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

Laugarrena.- HABEren betebeharrak

HABE eginkizun hauetara behartzen da hitzarmen honen indarrez:

1. Dirulaguntzen eskaerak aztertu eta horiek oinarrietan bildutako irizpideen arabera balioestea.
2. Balioespen txostena ematea eta ebaluazio batzordeari igortzea.
3. Dirulaguntzak emateko beharrezko baldintza edo eskakizunak betetzen direla egiaztatzea, bai eta diruz laguntzen den jarduera eta xedea ere.
4. Onuradunei eman eta banatzea deialdiaren oinarrietan arautzen diren dirulaguntzetarako xedatutako funts publikoak, deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideei jarraikiz.
5. Onuradunek aurkeztzen dituzten frogagiriak aztertu eta laguntzen likidazioa proposatzea.
6. Eskatzaileek aurkeztutako eskaerak eta gainerako agiriak babestea, dokumentu guztiok Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren esku egon daitezen, eskatzen dizkion orduko.

Bosgarrena.- Konpentsazio ekonomikoa

HABEk uko egiten dio Gipuzkoako Foru Aldunditik konpentsazio ekonomikorik jasotzeari, dirulaguntzak kudeatzeko hitzarmen honetan adosten den laguntza emateagatik.

**HABE*****Seigarrena.- Funts publikoak erakunde laguntzaileari ematea***

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmen hau izenpetu eta, gehienez ere, bi hilabeteko epean utziko du HABEren esku, hark berariaz izendatzen duen kontu korrontean, onartutako deialdiaren bitartez baimendutako 42.457,00 euroko diru kopurua, 1 0150.500.480.02.02 2021 aurrekontu sailaren kargura.

2.- HABEk ezin izango ditu funts horiek erabili beste ezertarako, hitzarmen honen gai diren dirulaguntzak ordaintzeko ez bada, onuradunei guztiz eman arte.

3.- HABEk hitzarmen honen indarrez jasotzen dituen funts horiek ez dira inola ere bere ondarearen parte izango, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.- Funts publikoak onuradunei emateko baldintzak

1.- Onartutako deialdian dirulaguntzen onuradun gertatzen diren pertsona fisikoei eman beharko dizkie HABEk bere esku utzitako funts publikoak, oinarrietan xedatutako eran.

2.- Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinaraziko dizkio HABEri deialdiaren barruan aitortutako dirulaguntzak.

3.- HABEk hitzarmen honen indarraldia amaitu aurretik zuritu beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari funts publikoak onuradunei entregatu dizkiela, dagokion funtsen transferentzia egiaztatzen duen Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun saileko Informazio eta kudeaketa sistemak (IKUS) jaulkitako *ordainketa-agiria (P)* aurkeztuta.

Zortzigarrena.- Dirulaguntzen onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunen betebeharrak dira onartutako deialdian jasotako guztiak.

Bederatzigarrena.- HABEk gorde beharreko agiriak

1.- Dirulaguntzen eskatzaile edo onuradunek aurkeztutako agiriekin osatutako espedienteak gorde behar ditu HABEk, eta espediente horiei erantsi behar dizkie dirulaguntzen kudeaketan zehar sor daitezkeen dokumentu guztiak.

**HABE**

2.- Horrekin batera, hitzarmen honen indarrez HABEk burutzen dituen jarduera guztien dokumentuak gorde behar ditu, bereziki funts publikoak dirulaguntzen onuradunei entregatu izana egiaztatzen duten agiriak.

3.- Hitzarmen honi dagozkion jarduera guztiak amaitzen dituenean, HABEk Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali behar dizkio aurreko bi puntuetan azalduko dokumentuak.

Hamargarrena.- Datu pertsonalen babesa

Hitzarmen honen babesean gauzatzen diren datu pertsonalen tratamenduak Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalei buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

Interesdunak bere datuak eskuratu ahal izango ditu, zuzentzeko edo ezabatzeko eskatu, datuen tratamendua mugatzeko eskatu, eta tratamenduaren aurka agertu. Eskubidea aitortuko zaio, halaber, kontrol agintaritzaren aurrean erreklamazioa jartzeko, alegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean.

Hamaikagarrena.- Funtsak itzultzeko betebeharra

Onuradunek jasotako diru kopuruak itzuli beharko dituzte, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu, 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 35. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada.

Era berean, HABEk erakunde laguntzaile gisa jasotzen dituen funts publikoak itzuli beharko ditu, 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 35. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada.

Hamabigarrena.- Egiaztapen jarduerak

HABEk hitzarmen honen xedea den jarduerari buruz eskatzen zaion informazio guztia jarri behar du Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa organoen esku, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku ere, eta haien egiaztapen eta finantza kontrolen mende geratzen da.

**HABE*****Hamahirugarrena.- Azkentzeko arrazoiak***

Lankidetzeta hitzarmena arrazoi hauengatik azkenduko da:


- Hitzarmenaren indarraldia amaitzeagatik.
- Alderdi sinatzaileek hitzarmena azkentzeko ahobatezko erabakia hartzeagatik.
- Alderdi sinatzaileetakoren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik, betiere haustea ezinezkoa egiten badu hitzarmenaren bitartez hartutako konpromisoak gauzatzea eta gertatuko haustea aldeztatik salatu bada.
- Deuseztasuna adierazteko epaileen erabakia emateagatik.
- Legeetan aurrez ikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Hamalauugarrena.- Araubide juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da hura interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.

Hitzarmen honetan erabakitzen ez diren alderdi guztietan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak eta 24/2008 Foru Dekretuak ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu hau izenpetu dute.

 La firma es VÁLIDA, firmada por BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI
<b-zupiria@euskadi.eus>.
Hora de firma: 2021/11/22 10:25:29 +01'00'

 La firma es VÁLIDA, firmada por MARKEL OLANO ARRESE
<molano@gipuzkoa.eus>.
Hora de firma: 2021/11/19 14:07:04 +01'00'